

@@@IRAGARKIA, zeinaren bidez XXXXXXXXXXXXXXXX jaunari jakinarazten baitzaio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren agindu bat, 2011ko maiatzaren 18an emandakoa.@@@

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak, 2011ko maiatzaren 18an emandako Agindu bidez, onartu egin zuen babes ofizialeko honako etxebizitza hau saltzeko eskaintza: Gasteizen kokatutakoa, XXXXXXXXXXXXXXXX jaunaren titulartasunpekoa, EB3-0781/00-LC-004 espediente-zenbakia duena.

Aipatu agindua interesdunari jakinarazterik izan ez denez, iragarki hau ematen da argitara, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan xedatutakoa betetzeko. Horretaz gain, honako ohartarazpen hauek egiten dira.

1.- Agindu horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean. Edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hara zenbatuko dira epe bi horiek.

2.- Aginduaren testu osoa eskura izango du interesdunak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo bere bizilekua dagoen lurraldeko ordezkartzan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 15a.

Zerbitzu zuzendaria,  
PALOMA USATORRE MINGO